

Testu liburuen azaleko begirada

Eskeletako liburuek Euskal Herriari buruz ematen duten informazioa «mugatua» dela frogatu dute EHUko hiru irakasleak

ASIER ITURRIAGAETXEBARRIA - BILBO

Euskal Herriko Unibertsitatearen Bilboko Irakasle Eskolan irakasleak prestatzen egiten dute lan Begoña Bilbaok, Karmele Perez Urrazak eta Gurutze Ezkurdiak. Urteetako lanaren ostean, konturatu ziren euren ikasleek ez zutela Euskal Herriari buruzko informazio zehatz eta onik,

eta euren buruari galdetzen hasi ziren zergatik gertatzen ote den hori. Hala, eskolan jasozten duten ezagutzan egon zitekeela horren arrazoiak pentsatu zuten. «Gainera, guk tesia ere prestatu nahi genuen; ikasleaz aparte, unibertsitariak garen heinean, ikeritza ere gure lana dela usie genuelako», dio Bilbaok. Aztertuko zutena erabakita

zeukatela, tesia hirurek batera egitea adostu zuten, bakoitzak alor bana hartuz. Bilbaok kulturen erreferenteak begiratu zituen; Perez Urrazak zientzia, teknologia eta lanbideak; eta Ezkurdiak geografia eta historia. Baina aurteik, azterketa nola egin behariko zuten pentsatu zuten; mugatu beharra zeukatela. Hala, eskola liburuek azterzea adostu zuten.

«Azken batean, eskola liburuek curriculumen isla dira. Gainera, eskola liburuek asko erabiltzen dira, eta eragin handia dute. Izan ere, irakasle gehienek horiek jarraitzen dituzte», azaldu du Bilbaok.

Hala ere, oraindik gehiago mugatu behar izan zuten euren ikerketa eremua, eta 11-12 urterako ikasleek erabiltzen dituzten u



GUZTIRA 80 eskola liburu aztertu dituzte. 13.310 orri irakurri eta 22.238 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu dituzte. Eskola liburuetan Euskal Herria, «entitate sozio-kultural moduan» ez dela ardatza ondorioztatu dute. LAMBER FERREMANOZ/ARROQUE / ANSAKXI/PIESS

➔ GENEROA

Emakumeak «oso gutxi» agertzen dira eskola liburuetan

Kultura erreferenteak, geografia, historia eta lan mundua eskola liburuetan nola agertzen diren azaltzeaz gainera, emakumeen presentzia zehabatekoa eta nolako den ere begiratu dute euren azterketan Begoña Bilbaok, Karmele Perez Urrazak eta Gurutze Ezkurdiak. Orokorrean emakumeen trataerak hobera egin duela azaldu badute ere, oraindik

hobertzeko asko dagoela azpimarratu dute.

Izan ere, eskola liburuetan gizonen presentzia nagusi dela salatu dute. Halaber, emakumeak, haurrak eta zaharrek «oso gutxi» agertzen direla esan dute. «Egia da emakumeak lehen baino

gehiago agertzen direla, baina, gizonen alde batera, gizonen diskriminazioa handia da», azaldu du Perez Urrazak. «Hori

kantitatez, kualitatiboki nola agertzen diren emakumeak aztertu barik daukagu oraindik», gaineratu du. Liburuetan emakumeak

kualitatiboki daukaten presentzia oraindik sakon azertu ez badute ere, azaleko ondorio bat ematera ausartu da Perez Urrazak: «Adibidez, liburuaren batean agertzen da Ainhoa Arreta edo Dolores Ibaruri *Psionaria*, baina aipamen txikiak dira.

Emakumeak ez dira normaltasunez agertzen eskola liburuetan». Hala ere, aspaldian andrazkoak lanbide

batzuei lotuta —sendagileak, erizainak...— azaltzen hasi dira gaineratu du. Bestalde, curriculumetan esaten dena eta azkenean eskola liburuetan agertzen

dena ez datozela bat azpimarratu du Bilbaok. «Curriculum ofizialetan esaten da berdintasunaren alde egin behar dela alor guztietan. Gero, liburuetara zoaz eta bertikoa ikusten duzu, gizonen ikuspegiak dira. Alor guztietan, gainera, erreferentzia nagusiak gizonen ikuspegiak dira», esan du EHUko irakasleak.

liburuak —testu idazkiak zein ikonografia— begiratzea erabaki zuten. «Adin horretan hasten dira ezagutza hori jasotzen. Gero, arrazo psikologikoak ere badaude», zehaztu du Ezkurdiak. Hala, XX. mendean eskaraz argitaratu diren eskola liburuek guztiak aztertu dituzte. Horien parekoak diren gaztelaniazko eta frantseseko liburuek ere begiratu dituzte, konparatuz egin asmoz. XXI. mende hasierako eskola liburu berriak ere aztertu dituzte. Guztiara, 80 liburu aztertu dituzte, eta 13.310 orri irakurri eta 22.238 ikono neurtu, kokatu eta deskribatu. Bilboaren esanetan, atera duten ondorio nagusia hau da: «Entitate sozio-kultural moduan hartuta, Euskal Herria ez da ardatza testu liburuetan».

Adibideak asko izan daitezke.

Eusko Jaurlaritzaren jarrera

Hori zergatik gertatzen den ere azaldu dute. Beren ustez, hori egitea merkeagoa da argitalerentzat. «Estatu osorako bali duen edizio orokor bat prestatzen dute, eta horri erkidego bakoitzeko orrialde gutxi batzuk gehitzen dizkiete», argitu du Perez Urrazak. Hala ere, argitalerentzat politikak horrek taldea egiten du Euskal Autonomia Erkidegoko curriculumarekin, adibidez. «Eskola liburu bat onartzeko, proiektuari begiratu zaito, eta ez liburuari. Proiektu batak jar dezake Euskal Herria aipatzen duela, baina gero batek daki non eta nola agertzen den hori. Hor ikusten da proiektua bakarrik aurkezten ziriakitu asko gertatzen direla», adierazi du Perez Urrazak. «Gertatzen dena da interpretazio oso malguak egiteko aukera eskaintzen dutela curriculumeko», gaineratu du Bilbaok.

Egoera horren aurrean Eusko Jaurlaritzak ezin dezakeela gauza handirik egin ageritu dute, besteak beste, argitalerentzat enpresa pribatuak direlako.

«Baina, gutxienez, hausnarketa egin beharko luke. Euskal Herria entitate sozio-kultural moduan ez da irakasten eskolatan. Hori jakin behar da, azerttu behar da, eta behar izanez gero, konponbideak bilatu behar dira», esan dute.

Eskola liburutetan Euskal Herriari buruzko informazio egokirik jaso ez arren, gabezia horiek betetzeko moduak badaudela azaldu du Perez Urrazak. «Irakasleek bete dezakete eta baturtutan betetzen dute. Ikasleak koadernoak, orientabiderako liburuak eta bestelako materiala ere erabiltzen dela kontuan izan behar da. Gero, haur literaturara ere hor dago. Baina hori guztia irakaslearen izaeraren esku geratzen da», esan du. Hala, Aeta D ereduko ikasleek artean aldeak izaten direla zehaztu du Bilbao. Halaber, eredu bietako ikasleek erabiltzen duten materiala bera ez dela gaineratu du Ezkurdiak. «Nahiz eta itzulpenak izan, ez dira liburu berak. Izan ere, A ereduko liburutetan euskara edo katalana ondare moduan agertzen dira. Erreferentea Espainia izaten da beti».

Nafarroan eta Iparraldean erabiltzen diren eskola liburuek ere azertu dituzte. «Psikologiak agintzen du norbere herritik kanpora joan behar dela ezagutza eskaintzen. Gertatzen dena da Euskal Herria helzen direnean Espainiara edo Frantziara izaten dela jausia. Nafarroan, EAE ez da existitzen. Iparraldean, Iparraldea ere ez; Frantziada euren erreferentea», argitu du Ezkurdiak. Hala, eskola liburutetan zantketa administratibopolitikoak gero eta eragin handiago daukala argitu du Bilbao.

Azken urteetan egoerak hobera egin duela aitortu badute ere, etorkizunari begirako dagoela egiteko esan dute hiru irakasleek. «Lehenengo, zer gertatzen ari den baizetatu behar da, baturtz konturatu ere ez direla egin uste dudalako», adierazi du Perez Urrazak. Bilbao, bere aldeetik, euskal gizarte osoari hausnarketa egiteko eskatu dio. «Euskal kultura zer den pentsatu behar dugun, oraindik ere eskola liburutetan erabaki gabe dagoelako».

● Lan bat, hiru arlo

BEGOÑA BILBAO (Kultura erreferenteak aztertu ditu)

«Euskal Herriko kulturaren agerpena oso folklorikoa da»

Euskal Herriko kultura eskola liburutetan nola agertzen den aztertzea egokitu zaito Begoña Bilbao Euskal Herriko Unibertsitateko irakasleari. Arlo horretan «gabezia handiak» daudela uste du. «Gure kultura gain-gaitetik begiratzeko», azaldu du. Euskal Herriko kultura eta ohiturak eskola liburutetan gutxitan agertzeaz gainera, ema-

ten duten irudia ez dela egokia esan du Bilbao, «Euskal Herriaren izaera modernoa ez delako azaltzen».

Izan ere, Euskal Herriko kultura agertzen denean, iraganeko irudia ematen dela esan du Bilbao: «Euskal Herriaren agerpena oso folklorikoa dela ikusten da. Jaiak, ohiturak eta horrelakoak agertzen dira. Hala



MANISU RAMIREZ / ANAGAZKI PRESS

ere, inauterriak, sukaldaritza, dantzak eta horrelakoak dira ohiturak. Hau da, betiko euskal kultura. Baina hori ez dutela gaur egunera ekartzeko».

Euskara eskola liburutetan nola agertzen den ere begiratu du EHUKo irakasleak. «Kulturarekin gertatzen den gauza bera daukagu euskararekin. Europako hizkuntzarik zaharrena dela esaten dute ia liburu guztiek. Gaztelaniarekin batera, hizkuntza ofiziala dela esaten dute, eta ez gaztelania eta frantsesarekin batera», zehaztu du.


«Langileak ez dituzte Euskal Herrian kokatzen»

KARMELE PEREZ URRAZA (Teknologia eta lanbideak aztertu ditu)

Lan mundua, teknologia eta zientzia eskola liburuek nola lantzen dituzten begiratu du Karmele Perez Urraza EHUKo irakasleak. Besteak beste, langileak «gero eta gutxiago» agertzen direla frogatu du. «Nik ez dakit nondik bizi garen euskaldunok, aisialditik bizi ote garen», esan du, barrez. Halaber, eskola liburutako beharrik

definitu gabeko lekuetakoak direla azpimarratu du. «Langileak, eta lan mundua oro har, ez dituzte Euskal Herrian kokatzen. Gainera, hori egiten duten bakoitzean, iraganean kokatzen dituzte. Azken batean, eskola liburuek ez dute edaten iurri sozio-kulturaleratik».

Gaur egun Euskal Herrian dauden lanbideak eskola libu-



MANISU RAMIREZ / ANAGAZKI PRESS

rutetan ez agertzea faltran botatzen du Karmele Perez Urrazak, eta, adibide moduan, industria ipini du berak: «Euskal Herriko industria punta-puntakoa izanda. Bestalde, hemen badaago industria modernoa, parke teknologikoak daude, baina hori ez da agertzen liburutetan».

Horrez gain, sektoreak ere ez direla agertzen esan du. «Nekazaritza agertzen da batzuetan, baina baserriarekin gero eta harrernan gutxiago dauka. Arrantza ere oso gutxi agertzen da», azaldu du.

«Euskal Herri osoaren ikuspegirik ez dute ematen eskola liburuek»

GURUTZE EZKURDIA (Geografia eta historia aztertu ditu)

Gure ikasle txetxeetan erabiltzen diren liburutetan geografia eta historia nola jorratzen duten aztertu du Gurutze Ezkurdia

EHUKo irakasleak. Landu duen tesia prest daukan arren, oraindik ez du aurkeztu eta defendatu, eta, beraz, daukan informazio guztia ezin duela azaldu aitortu du. Hala ere, oinarritzko

ondorio batzuk adierazi ditu. Hala, Ezkurdiaren ustez, «Euskal Herri osoaren ikuspegirik ez dute ematen eskola liburuek».

Hori frogatzen duten hainbat adibide eskaini ditu EHUKo irakasleak. Besteak beste, mapa jarritzen dutenean, nola agertzen den azaldu du: «Batzuetan Euskal Autonomia Erkidegoa

Ordizialako Udala

IRAGARKIA

Alkatezaren 553. Dekretu bidez, 2003ko uztailaren 7an, hasiera batez, onartu da, Plan Partzialaren proiektua, "22 - SAN JUAN Hirigintza Eskualdearen Eremuari" degoitiko, proiektu hori Jose M. Asenjolaza Jaurek egindua, Udaletxeak egindua

Hori dela eta, hilabetez ikusgai egongo da proiektu hori, iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Oribialaren argitaratzen den hurrengo egunetik hasita, doakienek aztertu eta egoki deritzoten ohar eta alegazioak aurkez ditzaten.

Udaletxeko Idazkaritzan arbu- daiteke dokumentua, laneguntzaren, larunbatetaren izan epeko goizeko 9etarako 13ra.

Oribiala, 2003ko uztailaren 7a.

ALKATEA

Lezoko Unibertsitateko Udala

IRAGARKIA

S-3 Sektoreko Plan Partzialaren aldekoak haserako onarpena ematea

2003ko ekainaren 12ko 236. dekretuaren bidez emana zitzaien hasierako onarpena S-3 Sektoreko Plan Partzialaren aldekoak.

Hasierako onarpen hori jendurrairean egongo da udalaxe honetako hirigintza sailaren harnabost laneguntz iragarri hau GAON argitaratu eta hurrengo egunetik kontzertzen hasita, egoki irudiltuz gero alegazioak aurkez ditzaten.

Lezo, 2003-07-07

Kepa Garbizu, alkatea

Abadiñoko Udala

IRAGARKIA

Abuztuaren 30ean Urkidiako Sanituztegiaren Errugadon Eguna ospatu behar denaz, honen bitartez herriko jaietako guduak egun horretan egongo den berri ematen dutesugu:

Audubusaren iraberr goizeko 10:00etan. Mezar goizeko 11:30etan.

Bazkaria (Bazkaria jantzeko): 14:00etan. Izan ematea 5 euro izango da.

Urkidiara joan nahiz doazen guztiak izena emen behariko duzu Zaleletoako nahiz Trenek-Melbaniako Nagusien egoitzaan uztailean 15etik abuztuaren 30era bitartean.

Abadiñon, 2003ko uztailaren 1ean.

ALKATEAK

TOLOSAKO UDALA

IRAGARKIA

Alkatezaren 553. Dekretuaren bidez, hasierako onarpena emari zion, Garmendia Argeya familiak susartzaren duen L.5 "Argelia" eremuako Plan Partzialari zenbait baldintzarakin.


Hirigintza Plangintzako zain kudeaketarako tresnak izapidetzeko neurriak zehazten dituen Ekainaren 30ko 17/1994 Legearen 6. artikulua xedatutakoaren arabera, espeditua jendurrairean jarriko da harnabost egunez, alegazioak aurkeztu ahal izateko, iragarri hau Gipuzkoako Aldizkari Oribialaren, Bernia, Diano Vasco, Gara eta Hitza egunkariretan argitaratuko da, eta epea azken argitarapen dataren bihararumetik zehabuko da.

Epe horretan, espeditua jendurrairentzat egarrian egongo da, Udalaxe Hirigintza Bulegoetan (Plaza Zaharra, 6-B). Alegazioak egotza bereko Sarriera Erregistroan aurkeztu behariko dira, Udalaxe Alkate-Lehendakari Jaunari zuzendurik.

Tolosan, 2003eko ekainaren 26an.

ALKATEA

Jokin Beldarratz Serran.



MANISU RAMIREZ / ANAGAZKI PRESS

agertzen da, eta beste batzuetan, Nafarroa bakarrik. Eskola liburu batzuetan agertzen da Euskal Herria bere osotasunean, baina gero lantzen dituzten datuak ez dira Euskal Herri osokoak izaten». Hala ere, datuekin gertatzen den nahaspila hori zantketa administratiboak eragin dezakeela aitortu du, zaila baita Euskal Herriko herrialde guzietako datuak bilitzea. Nahiz eta gero azpimarratu duen, lan hori egiten hasi ezean, datu osatu gabeko arazoak bere horretan jarraituko duela beti.



EUSKAL H
batek erai

ASIE

G

дутен и
дела dio E
Perez Uri
dia Bilbo
iakaslee
rretarak
haurrek
kola libu
EHUKo h
durena pi
izan du Bi
Horret
bateko 12
rrekin egi
Herrari b
derak egi
Euskadi
reizen o
izan du. I

